

# **KIROL PROIEKTUA**



**ANAITASUNA IKASTOLA HLHI  
(ERMUA)**

**Kirol Plangintza hau, azterketarako eta amaigabeko hobekuntzarako bidean, berrikusia izango da. Zuen proposamenak eta aldaketak kirol batzordean eta eskola kontseiluan onartuak izan ondoren, testu honetan txertatuko dira.**

## **INGURUMEN ANALISIA**

Anaitasuna Ikastolak, bertako ikasleen kirol-partaidetza betidanik bultzatu du eta Ermuan dagoen tradizioagatik, futbola, eskubaloia eta atletismoa dira jarduera eskatuena.

Kirol eskaintza Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan hasten da eta bigarren eta hirugarren zikloetan daude partaide gehien, eskaintza askoz zabalagoa dagoelako. Talde batzuk Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan (infantilak) mantentzen dira eta ondoren atletismoko taldeetan aritzen dira.

Gaur egun Ikastolak hurrengo kirol jarduerak eskaintzen ditu:

\*Multikirola 1. 2. 3. mailatan

\*Futbol 7 hirugarren mailatik seigarrenera (benjaminak eta kimuak)

\*Minieskubaloia hirugarren mailatik seigarrenera (benjaminak eta kimuak)

\*Atletismoa LHko hirugarren mailatik seigarren mailara (benjaminak eta kimuak )

\*Eskia (5. eta 6. mailatan)

\*Lehen Hezkuntzako ikasleentzat mendi irteerak

Lehen Hezkuntzako ikasleen artean %70ak baino gehiagok kirolean parte hartzen du maila guztietan, maila bakoitzean futbol zein eskubaloiko talde bat, eta atletismoko hainbat partaide daudelarik.

Ikastolak lehenengo eta bigarren mailetan, (kirol desberdinak ezagutzeko), multikirola bultzatzen du, espezializazioa goiko mailetarako utziz.

Hori dela eta, guraso batzuk beraien seme-alabak, 5 urtetik aurrera, herriko talde ofizialetan apuntatzea aukeratzen dute, beraz ez dute ikaskideen taldeetan jokatzeko.

Ikastolako kiroleko jarduerak Otsailaren 19ko "Cultura Fisica y del Deporte" ataleko 5/88 Legeak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ondorengo Foru-Dekretuek agindutakoaren arabera antolatuta daude.

Aipatutako legearen arabera, eskola kiroleko plan eta programa guztiak honako helburuetan oinarritu behar dira:

- Haurren heziketa osoa eta bere nortasunaren garapen harmonikoa.
- Ondorengo urteetan kirolean jarduteko oinarritzko heziketa eta baldintza fisikoak garatzea.
- Soilik lehiaketara bideratuko ez duen kirol anitzaren praktika.

Bizkaiko Foru Aldundiak, urtez urte argitaratutako dekretuen bidez Bizkaiko Eskola Kiroleko ekintzak arautzeko hiru jarduerak mota bereizten ditu:

- Lehiaketako kirol jarduerak
- Hastapen eta parte hartze jarduerak

- Multikirola
- Hauen barruan beste honelako xedapenak:
  - Konpetentziak/ gaitasunak
  - Parte-hartzaileak
  - Asegurua
  - Modalitateak, parte-hartzea, kategoriak
  - Diziiplina-araudia

Kiroletako jarduera desberdinen antolaketa teknikoa (egutegiak, epaileak, sailkapenak...) lurralde Federazio desberdinen esku uzten du Aldundiak. Gure taldeek federazio hauetan parte hartzen dute:

Bizkaiko eskubalo federazioa

Bizkaiko futbol federazioa

Bizkaiko atletismo federazioa

Instalazioei eta materialari dagokienez , Ikastolan bertan ditugun bi patio eta gimnasioa erabiltzen ditugu eta baita udalaren menpeko ondorengo kirol gune hauek:

- Betiondo kirol guneko futbol zelaiak
- Betiondoko erabilera anitzeko pista
- Betiondo kirol guneko atletismo pistak
- Miguel Angel Blanco Polikiroldegia

Instalazio hauen ordu-erabilgarritasuna hauxe da:

- Eskola egunetan, 16:30etatik 20:00etara
- Larunbat goizetan 9:00etatik 13:30etara

Talde bakoitzak bere material eskaerak egiten ditu eta berari dagokio kirol material horren kudeaketa.

Kiroletako koordinatzaileak, kirol guztiak koordinatzen ditu eta normalean talde bakoitzak entrenatzaile bat edo bi eta kirol ordezkarik bat izaten du. Entrenatzaileak euskara menperatzen duten eta kirol hori praktikatzen duten edo izan duten ikasle ohi boluntarioak dira. Ordezkariek ostera, ikasleen guraso boluntarioak dira.

Familiek paper garrantzitsua dute jarduera hauetan baina beti ere entrenatzailearekin eta kirol ordezkariekin lehiari sartu gabe

Familien laguntza ezinbestekoa da partidu edo lehiaketetako bidaiak gauzatu ahal izateko.

## **NORTASUN PRINTZIPIOAK**

Ikastetxe publikoa gara, 2-12 urte bitarteko ikasleei heziketa integrala eskaintzen diegu, gure hezkuntza proiektuan oinarrituta.

Gure ikasleak beraien heziketaren eta heldutasunaren protagonista dira. Gure helburua , ikasleei arlo intelektual , pertsonal eta sozialean garatzen laguntzea da.

Honela, gure ikasleek giza trebetasunak bereganatzen dituzte egunerokotasunean erabili ahal izateko.

Kirol mailan, parte hartzea bultzatzea helburutzat hartzen dugu, ikastetxea kirolaz gozatzeko eremua izan dadin.

Lehiakortasunari ezik, garrantzi handia ematen diogu parte hartzeari ikasleria, entrenatzaileak , ordezkariak , familiak ... kontutan hartuz.

Gure xedea, ikaslegoak kalitatezko kirol hezkuntza jasotzea litzateke.

Aintzat hartzekoa da baita ere, gure ikaslegoak , kirol mailan ikastetxearen irudi ona zabaltzea. Horregatik , garrantzi handia ematen diogu parte hartzeari, lagun berriak egiteari, gozatzeari ...eta ez hainbeste emaitzari.

Hau lortzeko, ezinbestekoak dira , helburu hauekin bat datozen kirol teknikoak (profesionalak izan ez arren), gure baloreak ikasleen artean bultzatu ahal izateko.

Azkenik, ikastetxeko estamentu guztietatik euskara indartzeari ematen zaion garrantzia egiaztatu, gai honek, behar den aldi guztietan, etengabeko errefortzua jasoko duela azpimarratuz.

### 3. HELBURUAK

- Euskara ikastetxeko arlo eta atal guztietako hizkuntza izanik, eskolaz kanpoko partaideen artean hizkuntzaren erabilera sustatu eta bermatu.
- Pertsonaren trebakuntza osoa garatzea; haren gaitasun guztiak izango dira kontuan: Mugimenduzkoak, kognitiboak, sozialak eta afektiboak, kirol eta jarduera ezberdinetan parte hartuz.
- Kirolari gure bizitzan denbora bat edo toki bat eskaintzeko jarrerak landu. Honetarako, kirolaren ezaugarri ludiko eta hezitzaileak erabiliko dira ohitura osasuntsuak norberegantzeko.
- Posible den adinik altuenean kirolean jarraitzeko aukerak sortu, eskeini, bilatu eta bideratu: Bertako kirol eskaintza zabalduz, barne txapelketak antolatuz, herrimailako txapelketetan parte hartuz, Eskola kiroleko txapelketetan parte hartuz...
- Jarrera egokiak landu: Aulkitxoan zelan egon eta jokatu, epaile edo aurkariengana zelan zuzendu, jokoko portaerak landu...
- Eskolaz kanpoko kirolean, partaide guztiak (entrenatzaile, kirol ordezkari, guraso, jokalaria...) osotasun berdinen atalak dira, beraz, helburu berdinen bila elkarkidetzak erabiliko dute, elkarri lagunduz.
- Aukera-berdintasuna: Eskolako haur guztien partaidetza bultzatuko du, sexua, arraza eta mugitzeko gaitasuna edozein direla ere.. Parte hartzeari eta ahalegintzeari garrantzia emango dio eta ez irabazteari.
- Ikasleen arteko elkarlana bultzatuko du talde kirol eta jardueretan.

## **4. ERAKUNTZA**

### **BETEBEHARRAK:**

- **KIROL BATZORDEA**
- **KIROL ARDURADUNA**
- **TALDE ORDEZKARIAK**
- **ENTRENATZAILEA**
- **GURASOAK**
- **IKASLEAK**

### **KIROL BATZORDEA**

#### **PARTEHARTZAILEAK:**

Gurasoen ordezkariak  
Zuzendaritza  
Kirol arduraduna

Kirol Batzordea Ikastetxeko kirol Proiektuaren martxa egokia dela eta markatutako helburuak lortzen direla ziurtatzen duen arduraduna da.

### **BETEBEHARRAK**

- Ikastetxeko kirol jarduera egokia dela eta “eskola kiroleko” helburuak betetzen direla bermatu.
- Kiroleko urteko gestio plana prestatu.
- Entrenatzaileak aukeratu.  
Irizpideak: Euskera  
Ikasle ohia  
Kirol prestakuntza



Baldintza hauek betetzen dituzten aurreko urteko entrenatzaileek lehentasuna izango dute.

## ESKUBALLOIA

Errotabarri klubarekin konbenioa . Entrenatzaileak eta laguntza teknikoa eskeintzen dute. Urtero errebisatuko da.

Urte osorako arbitroa aukeratu eta izendatu behar da.

- AMPAren izenean kamisetak gestionatuko ditu. Lehenengo urtean inbertsio haundiagoa, pixkanaka talde guztiak hornitu arte.  
2 kamiseta talde guztietan (lehenengoa Laranja eta bigarrena berdea) ikastolaren ezaugarri izateko. Sudadera gorri bat.  
Urtero ekipazioa berrizten eta premien arabera egokitzen arduratu.
- Kirol arduradunak aurkeztutako urteko plana aztertu eta onartu.
- Ikastolako kirol irizpideak adostu, ebaluatu eta markatu, beraien inguruko erabakiak hartuz.
- Ikastolako kirol organigrama osatu eta beratu osatzen duten atal eta talde ezberdinekin komunikazio bideak arautu.
- Estamentu ezberdinen arteko komunikazioa erraztu.
- Ikastetxeko kirolaren hobekuntza bilatu eta honetarako behar diren baliabideak lortu.
- Kirol talde edo gurasoen edozein arazo edo kezka erantzun bat eman.
- Kirol Proiektua prestatu, errealista eta neurgarria, eta Eskola kontseiluan aurkeztu, beraren onarpenerako.
- Urtean zehar 3 bilera egin gutxienez. Bat kurtso bukaeran balorazioa egiteko.

- Maila baten bi talde egin behar direnean, jokalaria asko daudelako, kriterioa gelaka edo sorteoaren bidez egitea izango da. Behin ere ez “onak” eta “txarrak” taldeetan banantzea.

## **KIROL ARDURADUNA**

- Kirol eta eskolaz kanpoko ekintza guztien koordinatzailea eta kirol batzordeko partaidea izango da. Talde ordezkari, entrenatzaile, ikasle, guraso, etabarrekin harreman zuzena izango du.

### **BETEBEHARRAK:**

- Eskolaz kanpoko ekintzen urteko plana prestatu.
- Ikasleei kirol eta ekintzen oferta eskeini eta parte hartzera animatu.
- Ekintza edo kirol bakoitzeko zerrendak egin.
- Polikiroldegiko teknikariarekin harremanak: Multikirolako talde guztietako jokalaria, ordezkariak eta entrenatzaileen datuak pasatu, entrenamentu eta partiduetako egutegiak, ordutegiak, espazioak...zehaztu, etab.
- Entrenatzaile eta ordezkariarekin harremanak: Betebeharrak, arautegiak, egutegiak, ordutegiak, espazioak... taldeen funtzionamendu egokirako behar den informazio guztia.
- Entrenatzaile eta delegatuen kezka eta premiak kontutan hartu eta kirol batzordea informatu.
- Ikasleekin harremanak: Betebeharrak, egutegiak, ordutegiak, taldeen funtzionamendu egokirako behar den informazio guztia, partaidetza bultzatuz.

- Entrenatzaile eta jokalarien arteko konfliktoetan laguntza eman.
- Familiekin harremanak: Betebeharren, egutegien, ordutegien eta funtzionamendu egokirako behar den informazio guztia bidali.
- Instituzioekin harremanak: Diputazioa, kirol etxea eta Federazioekin harremanak: Inskripzioak, fitxak, baimenak, dirulaguntzak eta behar diren ekintza burokratikoak egin, ikastetxearen eta AMPAren izenean.
- Kirol ekintza, lehiaketa, ikastaro... jakinean egon eta entrenatzaile eta delegatuak informatu.
- Kurtso bukaeran urteko memoria egin.

## **TALDE ORDEZKARIAK**

- Taldeko gurasoak koordinatu eta informatu.
- Partiduen ordutegiak jakin-arazi gurasoei.
- Irteera-kotxeak antolatu.
- Partiduetara umeen fitxak eraman.
- Partiduetan aktak bete.
- Partidu orduan behar den joku-zelaiaren prestaketan edo/eta materialaren prestaketan lagundu.
- Partiduen emaitzak Federazioko web orrian sartu.
- Guraso taldearen kexu, ezinegon e.a. bideratu kirol arduradunari edo kirol batzordeari.

- Kirol batzordeak edo arduradunak konbokatutako bileretan parte hartu.
- Taldeko argazki digitalizatuak atera web orrian eskegitzeko.
- Jokatzeko behar den ekipajea eta materiala eguneratzen arduratu, beste gurasoekin batera erabakiak hartuz. Kurtso bukaeran ikastolak emandako kamisetak jasotzeaz arduratu (bajaren bat dagoenean)
- Eskola kirolaren “filosofia” familia artean gogoratu.
- Taldean beste ekintza batzuk antolatu: bazkaria, ibilaldiak, bokadilloak...

**Talde bakoitzean ordezkari bat egongo da. Bozketaz edo/eta txandaka aukeratuko da. Karguak urtebete iraungo du. Luzatu nahi duenak posible izango du beste gurasoek onartzen badute.**

### **ENTRENATZAILEAK:**

### **HELBURU OROKORRAK:**

- Talde lana, lankidetasuna eta laguntasuna zaindu eta bultzatu.
- Kirolaren helburu orokorrak talde osora transmititu eta taldeko partaide bakoitzarekin landu.
- Dagokion kirolaren ezagupenak irakatsi eta landu.
- Osasun eta higiene azturak zaindu eta landu.
- Materialaren erabilera egokia ziurtatu eta beronen erabilera arauak irakatsi, bete eta bete arazi.

- Bere prestakuntza eta hobekuntza teknikoa hobetu/osatuko duten ekintzetan parte hartu.
- Euskeraren erabileran ahalegin berezia.
- Bere taldeko jokalarientzat eredu den heinean, bere jokaera zaindu.

### **HELBURU OROKORRAK LORTZEKO JARRERAK:**

- Denboraldi bakoitzerako helburu orokor batzuk ezarriko ditu.
- Saioak aldez aurretik prestatuak izango ditu.
- Jokalariak berdin baloratuko ditu, ez du inor diskriminatuko.
- Jokabide baikorra, bultzatzailea, dinamikoa eta aktiboa izango du baina protagonismoa jokalariek dute.
- Joko garbia bultzatuko du gure izaeraren parte delako.
- Entrenatzailearen lana ikasturte osorako hitzartuta/bermatuta egon beharko litzateke.
- Hiru hilez behin oinarrizko balorazioa aurkeztu eta eman beharko dio kirol arduradunari (Ikusten dituen taldearen aurrerabideak , gabeziak, arazoak, etab.)

## PROZEDURAK

### Entrenamendua/Partidua

- Materialaz arduratu.
- Beroketa zuzendu.
- Larunbatetako partiduetara joan (etxeakoak eta kanpokoak) Ezinezkoa badu, ordezeko bat topatuko du..
- Bere entrenamenduan, arrotzak diren elementu eta pertsonak ez dute tokirik. Partiduetan ere, aulkitxoan eta honen atzean, jokalaria edo talde ordezkaria ez den inor ez da egongo.
- Lanerako jarrera mantenduko du eta entrenamenduaren/partiduaren dinamizatzailerak izango da.
- Talde ordezkari, edo kirol arduradunari beharizanen berri emango die.
- Epaile, jokalaria eta beste entrenatzaileen aurrean jarrera egokia eta eredu garria izango du.
- Puntualitatea eta ordutegiak errespetatzen eta betetzen, ahaleginduko da.
- Partidua/entrenamendua bukatu ondoren, materiala jasotzeko ohitura landuko du, eta betetzen dela ziurtatuko du.
- Partidu/entrenamentuetan bera izango da aldageletan lehena sartu eta azkena irtengo dena. Dena jasota uzteko ahalegin berezia egingo du. Neska edo mutilen aldageletarako jokalaria arduradun bat izendatuko du.
- Dutzatzeko tartea 20 minutukua izango da eta entrenatzaileak kontrolatuko du.

## GURASOAK / FAMILIAS

- Seme-alabei ardura eta saiatzearen garrantzia erakutsi, entrenamentu eta partiduetara orduz eta material egokiaz joatera animatuz.
- Seme-alabak lehiaketetara lagundu, ahal den neurrian. Joan ezinean, taldeko beste pertsona batengan jarri honen ardura.
- Taldearen era guztietako eta maila guztietako beharrei bereziki erantzun.
- **Etxeko eta kanpoko** kirol partaideenganako errespetu zorrotza (joku-epaiak, entrenatzaileak, ordezkariak, lehiakideak, beste gurasoak, etab) egon litezkeen kexak ordezkariaren bitartez kirol arduradunarengana edo kirol batzordera zuzenduz..
- Taldeko jardueretan sorturiko gastuetan partehartzea.
- Oso garrantzizkoa da gauzen alde ona ikusten ahalegintzea baita jarrera baikorra mantentzea.
- Umeek ez dute jolasten jendea entretenitzeko ezta garaile izateko; umeek ondo pasatzeko eta kirolaren bitartez heitzeko jolasten dute. Ez ezazu hori inoiz ahaztu!
- Parte hartzaile guztien ahaleginak txalo itzazu. Garrantzitsuena ez da emaitza.
- Hutsegiteagatik ez iezaiezu errietarik egin; ikasten ari dira. Diozun guztia positiboa izan dadila, motibagarria.
- Arbitroen erabakiak errespetatu itzazu eta umeak hori egitera eta ezarritako araudiaren arabera jokatzera animatu itzazu.
- Uko egin iezaiezu jendeak edo edozein parte hartzailek sortutako edozein motatako indarkeriei edo jarrera ezegokiei.


- Ez ezazu inoiz ahaztu zure portaera zure seme-alabentzako eredu izango denik, eta batez ere benetako protagonistak eurak direnik.

## **IKASLEAK**

- Irabaztea eta galtzea kirolaren parte direla eta benetako garaipena saiatzea dela ulertu.
- Entrenatzailearen aholku eta zuzenketak onartu bere kirol hezitzailea delako.
- Taldekideen ekintzak animatu eta txalotu.
- Lehiakideak, joku-epaia , beste gurasoak etab. errespetatu.
- Entrenamentu eta partiduetara orduz, material egokiarekin eta gogoz joan. Faltak abixatu.
- Aldagelak eta instalakuntzak garbi mantendu eta materiala zaindu.



## ORGANIGRAMA



## PLANGINTZA EKONOMIKOA

Eskolako zuzendaritzak, gurasoak eta “Eskola Kiroleko” arduradunak, eskolaz kanpo eginiko ekintzak, gure heziketaren barnean oinarrizko ardatzat hartzen ditugu.

Hori dela eta, arlo honetan aritzen garenak, eskolaz kanpoko ekintza hauetan ahalik eta ikasle gehienek parte hartu dezan saiatuko gara, bertatik sortutako gastuak egokiak eta mugatuak izan daitezelarik.

Helburu hau, dagoeneko, hezkuntza komunitateak emandako laguntzei esker bideratuta dago.

Hauek izango lirateke gure diru iturriak:

Guraso Elkartearen bidez jasotako diru laguntzak. Ikasturte hasieran planifikatutako proiektuak gauzatu ahal izateko, aurrekontu orokorrean horretarako diru zati bat bideratzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru laguntzak: jasotako diru laguntza aldakorra izaten da, Aldundiak urte horretarako antolatu dituen ekintzetan parte hartzearen arabera

- a) Teknikoen formakuntza
- b) Partehartzea
- c) Internet bidez izena ematea
- d) Eskolako kirol proiektua

Aldi berean finantzaketari dagokionez, beste diru iturri batzuk ere aztertuko dira: herriko erakundeak, bankuak, kirol dendak ..

Partehartzea eta kirol mota zein kopuruaren arabera, gastuak orekatzen saiatzen gara. Gastuak murriztuz eta diru iturriak era orekatuan banatuz, ekintzetako parte hartzaile kopurua dugu helburu.

## Gastuak

Materiala: zahartu ahala taldeen ekipamenduak urtero berrizten dira. Parte hartzaile guztiek ikastolako logotipoa duten kamiseta eta sudadera daramate soinean.

## Garraioa

a)Ekintza puntual batzuk, mendi irteerek adibidez, garraiobidea behar dute. Umeentzat konponbide merkeena bilatzen saiatzen gara, beti ere aurrekontuen arabera.

b)Taldeen bidaiak diruz laguntzen dira

Udal instalazio eta bertako baliabideek sortutako gastuak

-Multikirola. Hilabetero ordaintzen dio IGEk IMDari

-Minieskubaloia. Diru kopuru bat ematen zaizkie familia hilero ( 100 €)

-Futbol 7. Diru kopuru bat ematen zaizkie familia hilero ( 100

-Atletismoa. Klubari ematen zaio diru kopuru bat urtean beraiek administratzeko.

-Mendi irteerak. IGEk ordaintzen ditu

-Aseguruak. BIGEk ordaintzen ditu entrenatzaileen aseguruak.

-Ekipamenduen berriztapena. IGEk ordaintzen du

-Eskia. Familiak ordaintzen dute 80€. Bestea IGEK finantzitzen du.

-Jolasak eta antzerkia. 100€ daude aurreikusita hilero bakoitzarentzat.

## **2018-19 IKASTURTEKO KIROL PLANGINTZA**

### **MULTIKIROLA:**

AMPAREN laguntzaz antolatutako ekintza, Miguel Angel Blanco Polikiroldegian eta IMD Ermuak kontratatutako monitoreek emana.

- Lehenengo maila: 24 ikasle talde baten.  
Ekintza: Astearteetan (16:30 – 17:30)
- Bigarren eta hirugarren maila: 24 ikasle talde baten.  
Ekintza: Ostegunetan (16:30 – 17:30)

## **MINIESKUBALOA:**

- ANAITASUNA kimuak (bostgarren maila) 11 jokalaria.  
Entrenamenduak: Asteartea (16:30 – 17:30)  
Osteguna (16:30 – 17:30)  
Entrenamenduen tokia: Betiondoko kirol anitzeko pista  
Partidetako tokia: Betiondo kirol anitzeko pista.  
Partidak: Larunbata goizetan (Eskola kirolak antolatutakoak)  
Lagunartekoak herriko eta inguruko taldeen artean.

ANAITASUNA 1 eta ANAITASUNA benjaminak. (2 talde). ( laugarren maila)  
14 jokalaria

- Entrenamenduak: Asteartea ( 16:30-17:30)  
Ostirala ( 16:30-17:30)  
Entrenamenduen tokia: Betiondoko kirol anitzeko pista  
Partidetako tokia: Betiondo kirol anitzeko pista.  
Partidak: Larunbata goizetan (Eskola kirolak antolatutakoak)  
Lagunartekoak herriko eta inguruko taldeen artean

## **FUTBOL 7B**

- ANAITASUNA Benjaminak (hirugarren eta laugarren maila) 16 jokalaria  
Entrenamenduak: Astelehena (16:30 – 17:30)  
Asteazkena (16:30 – 17:30)  
Entrenamendu eta partidetak tokia: Betiondo futbol zelaia.  
Partidak: Larunbata goizetan (Eskola kirolak antolatutakoak)  
Lagunartekoak herriko eta inguruko taldeen artean.

## **ATLETISMOA:**

- ANAITASUNA Benjaminak eta kimuak (hirugarren mailatik seigarrenera) 11 partaide.  
Entrenamenduak: Talde ezberdinetan banatu dituzte.  
Astelehena (16:30 – 18:00)  
Osteguna (16:30 – 18:00)  
Eskola Kirolak antolatutako frogetan parte hartzen dute.  
Herrian eta inguruan antolatutako lasterketa eta frogetan parte hartzen dute.

## **MENDI IRTEERAK:**

- Hiru-lau irteera kurtsoan zehar igandeetan kirol batzordeak antolatuta, arduradunak gurasoak izango direlarik. AMPAk subentzionatuko ditu eta parte hartu nahi duten guraso eta ikasle guztiei zuzenduak izango dira.
- Bidaiak: autobusez, trenez, oinez...
- Lehenengoa urriak 23an oinez Ermua -Mallabia. Mallabian "Mallegoi" baserria bisitatu eta bertako abereak ikusi (behiak) eta ondoren beste ekitalditxo bat egin ondoren taberna batean hamaiketako hartu eta Ermura bueltatu.

Partehartzaileak: Apuntatutakoak 50 inguru

Hurrengoak, sasoi eta eguraldiaren arabera antolatuko dira. Hauetariko batzuk izan daitezke:

- Zarautzera trenez eta handik oinez Getaria edo Oriora.
- Autobusez Aretxabaletara eta handik Urkulu urtegira.
- Trenz Debara eta handik oinez Itziarrera.
- Oinez Elorretara.
- Oinez Trabakuara
- ...

## **ESKIA:**

- Ipar eskia bostgarren eta seigarren mailako ikasleekin bi egunetan (osteguna eta ostirala)

Tokia: Somport

Ostatua: Villanuako aterpetxea

Monitoreak: Somporteko ipar eskikoak (10-11 ikasleko bat)

Irakasleak: Eskiatzen dakiten lau.

Partehartzaileak: 66 ikasle inguru (% 95a)

Autobusa: 80 plazatakoa

AMPAk dirulaguntza bat emateaz gain, ordaintzeko aukera ezberdinak ematen ditu, ekintza hau merkeagoa izan dadin eta ikasle guztiak parte hartzeko aukera izan dezaten.

## **JOLASAK:**

Lehenengo eta bigarren mailako ikasleei zuzenduak.

- Lehenengo eta bigarren maila: 10 partaide. Astelehena eta asteazkena (12.45-13.45)

Monitorea: Guraso Elkarteko begiraleak ( Antxitxiketaneekin kolaborazioa).

## **ANTZERKIA:**

Bigarren mailatik seigarren mailako ikasleei zuzendua.

- 2. Mailatik 6. mailara: 15 partaide. Osteguna (16:00 – 17:00)

Monitorea: Guraso Elkarteko begiraleak ( Antxitxiketaneekin kolaborazioa).